



- 1 larunbata**
- 18:30etan.- Dantza jaialdia Aurtzaka dantza taldearekin. Loinazko San Martin plazan. Antolatzailea: Aurtzaka dantza taldea.
- 2 igandea**
- 08:00etan.- Mendi-irteera Murumendira eta Garina "final-istaren eguna" ospatzeko. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.
- 10:00etan.- Igande goizeko irtenaldiak. Asmuberen egoitzatik. Antolatzailea: Asmube.
- 18:30etan.- Dantzaki dantza eskolako irakasleen eta ikasleen dantza - erakustaldia. Loinazko San Martin plazan. Antolatzailea: Dantzaki.
- 4 asteartea**
- 09:00etan.- XX. Errezil sagar, fruitu eta barazki lehiaketa. Loinazko San Martin plazan.
- 17:00etan.- Jolas eta kantu ikastaroaren hasiera (ikastaroa: azaroaren 4, 6 eta 11n, 17:30etik-19:00etara, helduentzat). Gaztegunean (Urbietan etxean). Antolatzailea: Euskara Saila.
- 19:00etan.- Beasaingo Paperak bildumaren 16. zenbakia erakusteko. Izenburua: "Beasainek bere bilakaera garraiobide eta industriari zor. 1840-1940". Usurbe Antzokian.
- 6 osteguna**
- 18:00etan.- "Emakumearen parte hartzea eta ahal-duntzea gizartean" tailerraren hasiera. Klaseak: ostegunetan 18etatik 20etara. Asmuben.
- 21:00etan.- Zine-kluba: "Caramel" filmaren proiektzioa. Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.
- 7 ostirala**
- 18:30etan.- Erraldoi eta kilikien irteera txistulariek lagunduta.
- 20:15etan.- Naia Taldearen dantza ikuskizun benefikoa. Usurbe Antzokian. Dirua Txolarte elkartearentzat.
- 8 larunbata**
- 10:00etan.- Bertako jeneroen azoka berezia. Loinazko San Martin plazan. Antolatzailea: Beasaingo Odolki Kofradia.
- 12:00etan.- Odolki-dastatzea eta lehiaketa. Loinazko San Martin plazan. Antolatzailea: Beasaingo Odolki Kofradia.
- 15:00etan.- Bazkari herrikoia. Tikitak aldeaz aurretik salgai. Loinazko San Martin plazan. Antolatzailea: Beasaingo Odolki Kofradia.
- 18:30etan.- Koskola txarangaren irteera kaleak girotuz.
- 9 igandea**
- 10:00etan.- Igande goizeko irtenaldiak. Asmuberen egoitzatik. Antolatzailea: Asmube.
- 12:00etan.- Elgoibarko Udalaren Musika Bandaren kalejira.
- 12:45etan.- Txistularien kalejira. Astigarreta auzoan.
- 13:00etan.- Elgoibarko Udalaren Musika Bandaren kontzertua. Loinazko San Martin plazan.
- 17:00etan.- Haurrentzako Txapa eta Iman tailerra. Loinazko San Martin plazan. Antolatzailea: Txilibutxof.
- 19:00etan.- Beasaingo XVII. Argazki-rallyko sari-banaketa eta aurkeztutako lanen ikustaldia. Udal Batzar Aretoa. Antolatzailea: Argizpi Argazki Elkartea.
- 11 asteartea**
- 18:00etan.- Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia. Usurbe Antzokian.
- 12 asteazkena**
- 09:30etan.- Haurrentzako zinea: euskarazko filmaren emanaldia. Usurbe Antzokian.
- 13 osteguna**
- 21:00etan.- Zine-kluba: "El bosque de luto" filmaren proiektzioa. Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.
- 14 ostirala**
- 19:00etan.- Javier P. Fdez. Ferrerasen argazki erakusketaren inaugurazioa. Azaroaren 14tik 23ra. Usurbe Antzokiko erakusketa aretoa. Antolatzailea: Argizpi argazkizale elkartea.
- 15 larunbata**
- 17:30etan.- Fantasiako eta beldurrezko zinema maratoia. Usurbe Antzokian.
- 16 igandea**
- 08:00etan.- Mendi-irteera: Laustierrekara. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.
- 10:00etan.- Igande goizeko irtenaldiak. Asmuberen egoitzatik. Antolatzailea: Asmube.
- 19 asteazkena**
- 17:30etan.- Ipuin kontaketa: "Haizeak kontatu zidan". Maite Frankoren eskutik. Udal Liburutegian.
- 20 osteguna**
- 18:45etan.- Musika Eskolako Bandak eta Txistulariek kaleak girotuko dituzte.
- 21:00etan.- Txatarrerria Keaton zine musikatua. Usurbe Antzokian.
- 21 ostirala**
- 20:15etan.- Flowklorikos taldearen Hip Hop emanaldia. Usurbe Antzokian.

- 22 larunbata**
- 17:00etan.- Haur Antzerkia: "Bremengo musikariak" Paraiso taldearen eskutik. 6 urtetik gorakoentzat. Usurbe Antzokian.
- 20:00etan.- Kantaka eta Xanbe abesbatza. Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.
- 23 igandea**
- 10:00etan.- Igande goizeko irtenaldiak. Asmuberen egoitzatik. Antolatzailea: Asmube.
- 27 osteguna**
- 19:00etan.- "Etiopia: Mujer e infancia" lankidetzari buruzko erakusketaren inaugurazioa. Azaroaren 29tik abenduaren 7ra. Usurbe Antzokiko erakusketa aretoa.
- 21:00etan.- Zine-kluba: "El baño del Papa" filmaren emanaldia. Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.
- 28 ostirala**
- 20:15etan.- Antzerkia: "Misterioso asesinato en Manhattan" Trasgo taldearen eskutik. Usurbe Antzokian.
- 29 larunbata**
- 17:00etan.- "Hire zain" Gar taldearen eskutik 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzat. Usurbe Antzokian.
- 30 igandea**
- 08:00etan.- Mendi-irteera: Guardetxea-Amezketara. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.
- 10:00etan.- Igande goizeko irtenaldiak. Asmuberen egoitzatik. Antolatzailea: Asmube.

Aurki Udalaren webgune berria martxan.



www.beasain.net



Odolkiari gorazarre

6 ERROMERIA
San Martinetan,
Astigarretara festara

7 LITERATURA
Eider Rodriguezek irabazi
du aurtengo Igartza saria

8 ONGIZATEA
Errehabilitazio Psikosozia-
leko Zentroak, ateak zabalik



Beasain iruditari...

Zerua uneoro aldatzen doan moduan, gure herriko kaleek ere itxura ezberdina hartzen dute ekintza edo gertakizunen arabera. Oraingo honetan, auto klasikoaren eszenatoki bihurtu dira. Urteetan atzera egin dugula dirudi.



2008

Goierri Motor Klubaren eskutik, ikus-kizun apartaz gozatzeko aukera izan dugu Beasainen. Udazken Kulturalaren egitarau barruan, antzinako ibalgailuen erakusketa eskaini digute. Aurtengoa, hirugarren edizioa izan da eta ehun autotik gora bildu dira herrian.

OHARRA

Erakusketa egunean, Goierri Motor Klubak nekazal etxe batean asteburua zozketatu zuen. Zenbaki irabazlea, hauxe: 0079.



Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



Después de 18 años de un uso cada vez más intensivo y teniendo que sustituir las vetustas instalaciones de las piscinas al aire libre se creyó conveniente en su día la ampliación y adecuación del mismo, incluyendo sobre todo en la

creación de una zona de agua de la que son deficitarias las actuales instalaciones. En el momento de definir este nuevo equipamiento se tuvo en cuenta:

- El cambio de hábitos respecto a la práctica deportiva que se percibe en la sociedad. Consideramos que un espacio dedicado al agua cubre la demanda de un amplio espectro de la ciudadanía que además de la práctica deportiva tiene en cuenta el disfrute e incluso solamente los aspectos saludables del ejercicio corporal.
- Ofrecer unas instalaciones de calidad para los beasaindarrak y goierritarrak y de esta forma equilibrar de alguna forma el tirón de la costa.

Para ello las nuevas instalaciones

cuentan de una nave de 2.500 m² donde hay 6 vasos de agua (natación, juegos acuáticos, hidroterapia...) y un tobogán. Unos 800 m² de lámina de agua frente a los 200 m² actuales. Además hay unas instalaciones integrales de sauna que se completan con una amplia zona de vestuarios. Dado el auge de las actividades ligadas al Fitness en la primera planta se ha habilitado un centro de Fitness de 800 m² que en el proyecto inicial no estaba previsto. Las obras están finalizando y nuestro objetivo es la apertura de las instalaciones para antes de fin de año. Mientras tanto, reiteramos nuestras disculpas a los usuarios de Antzizar Kiroldegia por las molestias que están soportando durante las obras y agradecemos su paciencia que esperemos sea compensada con la calidad y servicios de las nuevas instalaciones.

Beasaindarrak, Behobiako lasterketan!



Elena Calvillo

"Nik erronka pertsonal bat bezala hartzen dut Behobiako lasterketa. Lehen beti ikusle gisa joaten nintzen, oso gustoko baitut sortzen den giroa, animazioa. Duela hiru urte hasi nintzen korrika eta horixe jarri nuen helburu gisa. Estresari aurre egiteko balio du, lasaitu eder bat hartzeko... Baina nahiko nuke emakume gehiago ateratzea. Herri lasterketetan eta dezentet ibiltzen naiz eta frogatuta daukat: emakumeak %10 izaten gara, gutxi gora-behera. Nik animatzeko esango nieke". ■



Asier Arakama

"Hamaika urte daramatzat jarraian Behobian ateratzen eta jada ohitura bihurtu da ni eta nire lagunentzat. Dezentet ari gara entrenatzen eta ea zer gertatzen den. Lagunen artean ere halako pike bat sortzen da beti eta afariren bat edo, jokatzeko dugu. Behobian alde handia dago zer eguraldi egiten duen. Niretzat gozorenak lehenengo 8-10 kilometroak dira. Gaintxurizketara artekoak. Eta normalean hirugarren kilometroa egiterako, nik behintzat antzematen diot nola dudana gorputza eta gutxi gora-behera zer espero dezakedan". ■



Mikel Uranga

"Nik 9 edo 10 urte daramatzat Behobiako lasterketa egiten eta egia esan, adi ibili behar da izena emateko orduan. Apirilean edo ireki zuten epea eta bizpahiru egunetan beteta zegoen zerrenda. Lehen ez zen horrelako arazorik izaten. Gero eta komertzialagoa bihurtu da lasterketa eta badiudi errekorra haustera doazela, urtetik urtera partaide kopurua handitu nahian. Gu hiruzpalau lagun joaten gara eta gure erronkatxoa izaten da ordu eta erdi ez gaintetzea. Niri gehien kostatzen zaidan tartea da Mirakruzko igotza. 16 edo 17 Km. da eta nekea nabaritu egiten da ordurako". ■



Manu Arroniz

"Niretzat Behobiako lasterketa kirola egiteko aitzakia da. Urte sasoi horretan, erronka hori tarteko, kirol gehiago praktikatzen da. Nik 8 bat aldiz hartu dut parte eta balio duena da daramazun prestakuntza. Noski, 20 kilometroko lasterketa batean, eguraldiak ere eragina du, baina prestakuntza da garrantzitsua. Oso lasterketa popularra da. Niretzat okerrera da asko masifikatu dela eta azkenean negozio bihurtu da. Beste lasterketa batzuetan parte hartzea ia deus ez da kostatzen. Behobian, berriz, 30 euro-edo, sartu behar dira eta diru guzti hori Fortunara doa". ■

Beasaindar guztien esku dago

Editorea:
Beasaingo Udala

Lege Gordailua:
SS-1284-2008

Beasaindik kanpo bizi diren herritarrek Egunez Egun aldizkaria hileroko euren etxeetan jaso nahi badute edo, Beasainen bizi arren, norbaiti ez bazaio iristen, jar dadila harremanetan Udalarekin:



943 02 80 50



udala@beasain.net

OHARRA

www.beasain.net



Odolkia egiterakoan, eskarmientua bezalakorik ez



Juani Urretabizkaia
Zubeldia harategia

“Los carniceros estamos muy agradecidos a la Cofradía por la labor que ha hecho a favor de la morcilla. Hoy en día, la morcilla de Beasain se conoce en todas partes y eso se nota en las ventas”.



Juan Inazio Mujika
Mujika harategia

“Hay que trabajar con buen género. A mí es el consejo que me dio mi madre. Hoy en día todos lo hacemos así. Por tanto, no hay buenas y malas morcillas. Lo que ocurre es que cada uno le da su toque. Nosotros en verano, por ejemplo, no las hacemos porque no coincide con la temporada de la cebolla”.



Jose Manuel Olano
Olano harategia

“Hoy en día están muy de moda las especias. Hay quien utiliza canela, por ejemplo. Para mi gusto, la canela o añadir demasiadas especias resta sabor a la morcilla. Nosotros sí le echamos un poco de orégano natural, pero nada más”.



Juan Mari Irizar
Irizar Jatetxea

“A la hora de poner nota a la morcilla, hay que tener en cuenta tres cosas: el sabor, el corte, es decir, que quede lisito, y la presentación”.



Martin Urkiola
Odolkiaren Kofradiaren burua

“Para acompañar, lo mejor es el vino tinto. Ni agua ni sidra. Como deja grasa en el paladar, tiene que ser una bebida con cuerpo”.


Aurreneko urteetan Kofradiak Odolki Lehiaketa elkarrekin antolatzen zuen. 1994an atera zen es-
trainekoz kalera. Ordutik, indarra hartzen joan da eta gaur egun, jende andana etortzen da inguruko herrietatik ere. Aurten hitzordua azaroaren 8an jarri dute. San Martin eguna hilaren 11n izaten da eta hurbilen geratzen den larunbata aukeratzen dute odolki dastaketarako.

“Odolkia ondo egosteko ura irakiten hasten denean, sua minimora jaitsi eta ordubete eduki behar da taparekin estali gabe, bestela lehertu egiten da-eta. Bere denbora behar du, mimatu egin behar da”

Goiko Plazan karpa bat jarriko dute postuentzat eta bazkaria ere bertan egiteko aukera izango dute nahi dutenek. Dolarea Jatetxea arduratuko da otordua prestatzeaz. Indabak eta odolkiak, sakramentu guztiekin. Urtero legez, Kofradiako ordezkariak –guztira 95 anaikide dira– tokatuko zaie lehiaketako partaideek aurkeztutako odolkiak egostea. Martin Urkiola, Kofradiaren buruaren aburuz, odolki ondo egosteko urak irekiten duenean, sua minimora jaitsi eta ordubete eduki behar da, lapikoa taparekin estali gabe, odolkiak leher ez dadin”.

laz 16 bat aurkeztu ziren baina izan dira 40ra iritsitako urteak ere. Goierritik joan ohi dira gehienak baina Orioko eta Lasarteko harakinen batek ere parte hartu izan du. “Urte batean oriotarrak irabazi zuen. Oriotarrek ba al dakite ba odolkiak egiten? galdetzen genuen”. Izan ere, odolkiak egitea egiteagatik ez du zertan zaila izanik. Baina lehiaketak eskatzen duen mailara iristea ez da samurra. “Lehiaketa batek –dio Urkiolak– aldaketak ekartzen ditu produktu guztietan. Eta onerako”. Horretan ados dago Zubeldia harategiko Juani Urretabizkaia. Berari senarraren amak erakutsi omen zion odolkiak egiten baina ordutik hona asko aldatu du egiteko modua. “Lehen, esaterako, porrua eta tipula puska handietan sartzen zen. Orain, txiki-txiki eginda. Baina niri kosta egin zait hona iristea. Ez zait erraza

Compre el libro de recetas de morcilla,
llamando al 943 02 81 03



suertatu. Gainera, kantitate handiak ez ditut nahi egin. Ez da berdina ateratzen”. Urkiolaren iritzirako, gaur egun, “odolki sua-beagoak” egiten dira, “light-agoak”. Epaimahaian 30 bat lagun egongo dira. Tartean, telebistako aurkezleak diren Emma García eta Salvador Martín.

Epaimahaikideek lehiaketako odolkiak dastatzen dituzten heinean, herritarrek ere euro baten truke odolki berak probatzeko aukera izango dute, Kofradiak barra ipiniko baitu. Ordubetean, mila eta piku pintxo banatuko dituzte. 150 kilo odolki pintxotan, alegia.


Edonola ere, odolkiak hamaika aukera ematen dituen produktua da. Ideiak behar! Nahasketarako, piperrak betetzeko, kroketak egiteko... Laguntzeko, berriz, hoberena ardo beltza delakoan daude. “Ez ura eta ez sagardoa. Odolkiak koipea uzten du aho-sabaian eta garbitzeko gorpuzdun edaria behar da”.

“Kofradiak ipintzen duen barran, euro baten truke lehiaketara aurkeztu dituzten odolkiak probatzeko aukera izango dute herritarrek. 150 kilo odolki banatuko dituzte pintxotan”.

[Beasain]
egunez egun

San Martinetan, Astigarreta auzoa pil-pilean

Duela hamar bat urtera arte galduta egon ziren Astigarretako jaiak. Orain, ordea, erromeria giroan ospatzen dituzte San Martinak. Gainera, auzoa biziberrituta ikusten da, bai erortzeaz zegoen eliza konpondu zutelako duela hiru urte eta bai “Astauzel” elkarte berriak ateak zabaltu zituelako. Orain, jende mordoxka biltzen da asteburuetan otordurako. Bertakoak pozik daude. Hala dio Antonio Etxanizek.

Antonio Etxanize
Astigarretarra

Jakin-mina asetzeko...

Ba al dakizu 1615etik 1929ra arte Astigarreta herria izan zela eta ez auzoa? Aurretik, Seguraren zati zen. 1.929tik, Beasaingo udalerriri dagokio.

lusioz ari dira aurtengo erromeria prestatzen. Haietako bat Antonio Etxanize da, Astigarretako “Albitxu” baserrian jaioa. Ondo daki ingurumaria haietako berri eta berak azaldu dizkigu auzoko nondik-norakoak. Aurtun, San Martin eguna, azaroak 11, asteartean tokatzen da eta beraz, hurrengo igandean, hilaren 16an, ospatuko dute. “Eguerdiko 12:30ean, -dio Etxanizek- meza nagusia egingo da, Beasaingo San Martin abesbatzaren partaidetzarekin. Gero, herrikirolak izango dira Azurmendi eta Olasagasti aizkolariekin. Bertsolariek ere ez dute hutsik egingo. Mañukorta, Jabier Zeberio eta Ekaitz Goikoetxea arituko dira. Soinuarekin, berriz, Laja eta Landakanda”. Ia ehun lagun bildu ohi dira bazkaltzeko bertako “Astauzel” elkartearen. Mandubiko jatetxetik eramaten dute janaria.

Egun pasa borobila egiteko gonbitea egina geratzen da. Askok eskatzea ez bada ere, urteetan galduta egon da Astigarretako erromeria Antonioren hitzetan. “Hemen bizi ginenok batera eta bestera banatu ginen eta galtzera iritsi zen festa. Ostatu zaharra ere abandonatuta egon zen, eliza ia erorita...”. Duela hamar bat urte egoerari buelta ematea erabaki zuen lagun talde batek. Hango auzoalkateak Antoniori deitu eta lanari ekin zien. “Lau lagunek batzordea osatu eta Udalarekin harremanetan jarri ginen. Oso erantzun ona izan genuen Udalaren eta gainontzeko erakundeen artean eta oso eskertuta gaude”. Esfortzuari eta borondateari esker, auzoa altxatzen hasi ziren. Biziberritzen. Al-daketa nabaria da. Eta horri esker, aurtun ere erromeria aparta egingo da Astigarretan. Horrelako erromeriak ez dira jada toki askotan ikusten. Dantzarako gogoa duenak, badu tokia.



Astigarretako elizaren irudiak.

[Beasain]
egunez egun

Eider Rodriguez, XI. Igartza Sariaren irabazlea

“Edertasunak zer daukan boteretik eta zer problematik, hori interesatzen zait”

Deialdi honetan bederatzizko proiektu aurkeztu dira, eta “Katu jendea” izeneko ipuin-bildumaren egitasmoa irabazletzat jotzea adostu dute Igor Estankona, Xabier Etxeberria eta Karmele Jaio epaimahaikideek.

kin eta nire obrarekin. Lehenengo aldian gustura geratu nintzen eta aurrera egin nuen. Egia da ordu asko kentzen dizkizula, eta nik behintzat itzultzen pasatzen dudana denbora hori kentzen diot idazten pasa dezake-danari eta alde horretatik negatiboa da, baina plazer handia ematen dit. Orain, nire hizkuntza euskara da eta euskaraz idatziko dut.

Zure lanbideak ere literaturarekin du zerikusia. Momentu honetan Sautrela programarako ari zara lanean. Literaturan murgilduta buru-belarri bizi al zara?

Ez, ez. Nire bizitzako ordu batzuetan bai baina egunak 24 ordu ditu eta bestelako gauza asko ere egiten ditut literaturarekin inongo zerikusirik ez dutenak.

Lehenago editore lanetan ibili zinen. Esperientzia positiboa izan al zen kontutan hartuta merkatura hurbilduko zintuela?

Lau urte eta erdi aritu nintzen. Niretzako oso positiboa izan zen asko ikasi nuelako eta uste dut editore langintza dela nire bokazioetako bat. Badu bere zailtasuna, ez da samurra zeren erabaki asko hartu behar dira inongo zientziaren babesik gabe gainera. Askok intuizioz. Baina eten egin nuen ikasketak prozesu hura. Nahikoa izan zen. Lagun batek esaten zidan futbola gustatzen bazait ea zer nahiko nukeen izan: jokalaria ala entrenatzailea. Ba, erren geratzen zarenean izan zaitez entrenatzaile edo arbitro baina bitartean saiatu jokalaria izaten. Eta kontentzitu egin ninduen.

Idaztea pentsatzeko eta hitz egiteko modu bat dela diozu.

Hori esan al dut nik? Pentsatzen dut gauza asko ulertzeko modu bat dela, jendearekin harremanetan jartzeko modu bat, ez dakit, plazerra bilatzeko modu bat...

Bikien ama izan zara duela gutxi. Horrek zure idazle ikuspuntua aldatu al du?

Aldatu du nire bizitza praktikoa. Orain denbora oso ondo aprobetxatzen dut.

Zein da Igartza sarira aurkeztu duzun proiektua?

Ipuinak izango dira eta edertasuna izango da gaia. Edertasunak zer daukan boteretik eta zer daukan problematik. Gai hori interesatzen zait. Bikote harremanetan, lan harremanetan, lagun harremanetan... oso presente dago eta sarraski handiak eragin ditzake eta uste dut hortik joango naizela. Ez du esan nahi ipuin guztietan helduko diodanik gai horri, baina bai.

“Utikan Euskadi sariak” manifestua sinatu zenuen, baina sariak beharrezkoak izan daitezke, ala?

Ni Igartza sarira aurkeztu nintzenean langabezia nengoen, diru-iturri bat behar nuen eta aukera ona iruditu zitzaidan. Aurkeztu eta gero hasi nintzen lanean. Baina Euskadi sariak ez daukate zerikusirik Igartza sariarekin. Euskadi sariaren arazoetako bat da, besteak beste, zuk onartu egin behar duzula hortan parte hartzea, hau da, ez dute horrela huts-hutsean esaten “hau da urteko onena”. Ez, sinatu egin behar duzue kontratu bat esanaz onartu egiten duzula nominatua izatea. Eta aurtun ere ez da aldatu handirik egon. Nik uko egin diot. Deitu zidaten finalista nintzela esateko baina uko egin diot.

Duela egun gutxi aurkeztu duzu “Carne”, “Haragia” obraren erdarazko itzulpena. Zure lehen liburua ere lehenengo euskaraz ateratu zenuen eta gero gaztelez. Hori da zure aukeraketa?

Itzultzea eskatu zidaten eta pentsatu nuen niretzat errazagoa suertatuko zitekeela nik neuk egitea itzulpena. Leiala izan behar nuen, baina nire buruare-

Elkarrizketa batean esan duzu euskal idazleak ez zirela existitzen.

Ez garela existitzen Espainian. Ez nintzen nire buruaz ari, normala da ni ez ezagutzea baina baditugu idazle handi batzuk eta pare bat kenduta, edo bat kenduta, beste guztiak oso-oso ezezagunak dira. Eta pena bat da munduko beste irakurleentzat ez edukitzea eskuragarri obra horiek beste hizkuntza batzuetan.

Norena da hor errua?

Sistema editoriala horrelakoa da. Jotzen da hizkuntza handietan egindako lanak itzultzera. Logikoa ere bada. Ingelesezt idatzitako lan bat ia edonork ulertzen du. Hor behar da zubi-hizkuntza bat, esaten dute, dena eduki itzulita hizkuntza handi batera gero txikiak joan ahal izateko. Liburugintza sistema bera oso problematikoa da zentzu horretan.

“Idaztea pentsatzen dut gauza asko ulertzeko modu bat dela, jendearekin harremanetan jartzeko modu bat, ez dakit, plazerra bilatzeko modu bat...”



Eider Rodriguez.

[Beasain]
egunez egun

Beasain inaugura un

Centro de Rehabilitación Psicosocial destinado a enfermos mentales crónicos

Beasain ha ampliado su red de servicios sociales con la puesta en marcha de un nuevo equipamiento destinado a enfermos mentales crónicos. El Centro de Rehabilitación Psicosocial, ubicado en la Avenida Ezkiaga nº 1, fue inaugurado el pasado día 10 de octubre coincidiendo con la celebración del Día Mundial de la Salud Mental.

El acto de inauguración fue presidido por la diputada foral de Política Social, Maite Etxaniz, el gerente del Hospital Aita Menni, Iñaki Agirre y el alcalde de Beasain Patxi Plazaola. Les acompañaron varios alcaldes de las localidades vecinas y diversos cargos de Osakidetza, así como usuarios del nuevo centro y familiares.

El equipamiento es de la Diputación Foral de Gipuzkoa que ha podido crear este servicio gracias al buen entendimiento al que llegó con el Ayuntamiento de Beasain, al cederle éste el local donde se ha ubicado el centro.

De la gestión se encargará el Hospital Aita Menni, que cuenta con una larga trayectoria y una amplia experiencia en el sector. Con el de Beasain, son ya nueve los centros que gestiona.



Iñaki Agirre, Juan Ramon Larrañaga, Vicente Hueso, Maite Etxaniz y Patxi Plazaola visitando las instalaciones del centro.

- **Zerbitzua bailara osoari eskainiko zaio eta helburua da adimen gaixotasun kronikoa duten pertsonen laguntzea euren autonomia eta gizarteratzea garatzen.**
- **Zentroa ez da bakarrik gaixoei zuzendua, baita gaixoen familiei ere, informazioa eta aholkularitza behar baitituzte.**

- **Ekipamendu berria zerbitzuak eskatzen dituen beharretara egokituta dago. 220m²-ko azalera du eta 20 pertsonentzat izango du lekua.**

- **Zerbitzu berri hau martxan jarri da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beasaingo Udaleren elkarlanari esker. Udalak instalazioak laga zizkion foru erakundeari, Beasainek eta inguruko herriek gisa horretako beharrak aseta izan ditzaten etorkizunean.**

- **Zentroaren kudeaketa Aita Menni Ospitaleak hartu du bere gain. Guztira, Bizkaian eta Gipuzkoan antzeko beste bederatzizentz eramaten ditu.**

“Una atención más global e intensiva”.

El de Beasain, está pensado para personas de edad comprendida entre los 18 y 60 años que, en palabras de la diputada Maite Etxaniz, “no requieran internamiento psiquiátrico pero sí una atención más global e intensiva que la que pueden ofrecer los centros de salud mental de referencia”. Se trabajarán la psicomotricidad, la rehabilitación de déficits cognitivos, la psicoeducación, el entrenamiento en habilidades sociales, etc. Además, prestarán atención, no sólo a los enfermos y a sus necesidades, sino también a sus familiares.

El equipo terapéutico del Hospital Aita Menni está compuesto por un psiquiatra, una enfermera, un trabajador social, dos monitoras y un psicólogo clínico.

El centro atiende a los usuarios de lunes a viernes de 09.00 a 17.00 horas. Su funcionamiento es similar al de cualquier Centro de Día.

Distribución del espacio.

El dispositivo, cuya superficie supera los 200m², está totalmente adaptado en sus accesos e



Vista de las nuevas instalaciones del centro.

“Bailara honetan zabaltzen dugun lehenengo zentroa da Beasaingo hau, eta espero dezagun jarraitpena izatea”.

Iñaki Agirre. Aita Menni ospitaleko gerentea.

“Eguneko Zentro gisa funtzionatuko du eta bultzada bat izango da gaixotasun mentalak pairatzen dituzten pertsona eta familientzat. Laguntza eskainiko zaie gizarteratzeko”.

Patxi Plazaola. Beasaingo alkatea.

“Gizarte Zerbitzuen bigarren mapan, Gipuzkoan datozen urteetan 176 plaza sortzea aurreikusten da baliabide espezializatuetan”.

Maite Etxaniz. Gizarte Politikako foru diputatua.



Maite Etxaniz, Patxi Plazaola e Iñaki Agirre en un momento de la presentación.

En construcción el primer edificio que albergará el Polo de Innovación del Goierri

2009ko irailerako martxan izango dela aurreikusten da, 12 milioi euro kostako den eraikina.

Goierri Fundazioa da ekimenaren buru. Bere helburua da enpresen, unibertsitateen eta zentro teknologikoen arteko lankidetzaz gurutzatua sustatzea.

Uno de los proyectos estratégicos de la comarca viene de la mano de Goierri Fundazioa, compuesta por 18 Ayuntamientos de la comarca y 44 empresas. Se trata de la creación de un Polo de Innovación que se ubicará en Ordizia, junto al campus de la Universidad de Mondragón. Un macroproyecto que está ya en marcha con la construcción del primer edificio que ocupa 9.000 m². y costará 12 millones de euros. Este primer edificio acogerá los servicios centrales, los departamentos de investigación de la Universidad y parte de la actividad del Centro Tecnológico Lortek durante tres o cuatro años. Pero el proyecto es mucho más ambicioso. En total, se contempla la creación de otros cuatro edificios en las dos fases siguientes para la implantación de empresas tecnológicas, unidades de I+D+i y un semillero de empresas. La inversión global prevista asciende a 50,5 millones de euros. Sin duda, será una inyección para el tejido industrial y formativo comarcal.



Fotomontaje del edificio en construcción.

N-1 errepiderako itzulbidearen eraikitze lanak, bukatuta

Beasaingo anbulategi zaharra zegoen tokian egingo den biribilgunearen eraikitze lanek eragingo dituzten eragozpenak murrizteko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak N-1 errepiderako itzulbidea egiteko proiektua gauzatu du. Renfe geltoki aurrean azpiko pasabide bat eraikitzeaz gain, errepide berri bat eraiki da Etxegarateko norabidean, N-1arekin paraleloki doana. Foru erakundeak 330.000 euro bideratu ditu proiektua gauzatu ahal izateko. Lan horiei esker, Bernedotik Donostiarako norabidea har daiteke zuzenean beheko pasagunearen bidez.



Beasain no supera los límites establecidos de emisión de contaminación atmosférica

La red INMA Infancia y Medio Ambiente, que reúne a grupos de trabajo de diversas universidades y centros de investigación de distintas Comunidades Autónomas, ha confirmado que "según los resultados de partículas y metales recogidos desde 2006 hasta diciembre de 2007, Beasain se encuentra por debajo de los límites establecidos por la Directiva 2008/50/CE relativa a la calidad del aire".

Se han medido los principales contaminantes que son partículas de pequeño tamaño (PM 2,5), metales y dióxido de nitrógeno. El grupo de trabajo también ha comparado los resultados de metales obtenidos con otros estudios realizados en diferentes ciudades europeas como Amsterdam, Atenas o Roma y hay que decir que, aunque no se superan los límites, las emisiones son superiores a las de las ciudades comparadas.



La concentración media de NO₂ recogida en mayo del 2008.



Kanposantuan 186 horma-hilobi berri jarri dituzte

Horma-hobien beharra ikusita, Beasaingo Udalak beste 186 ipini ditu hurrengo urteei begira. Modulu aurrefabrikatuak erabiliko dira horma-hilobientzat, eta horretarako saneamendu sare bat ere egokitu behar izan da. Bestalde, urtero egin ohi den moduan, aurten ere margotu dituzte hilerriko kaleak. Bi pintatu dituzte, gainerakoak txukun zeudela-eta.



Goierri Irratia está ultimando los detalles para comenzar con la emisión en F.M. 107,0

Goierri Irratia tiene ya casi todo listo para arrancar su trayectoria. Si todo va según lo previsto, en los próximos meses, el nuevo proyecto será realidad. En principio, emitirán un magazine de dos horas a la mañana, programa que repetirán a la noche. También producirán una pieza informativa en colaboración con Goierri Telebista, que irán ofreciendo a lo largo del día unas cuatro o cinco veces. Completarán la programación con música y una oferta alternativa que enganchará al público. Bienvenidas las nuevas voces.

Medidas para evitar el desbordamiento del río

Muchos recordarán todavía el diluvio del pasado 1 de junio que hizo que se desbordara el río Oria inundando bajos, garajes y portales. Las intensas precipitaciones provocaron más de un disgusto y bastantes quebraderos de cabeza. El Ayuntamiento ha adoptado medidas para que no vuelva a repetirse. Las máquinas han hecho un nuevo cauce para dar salida a las aguas.



Erreka garbiketan 45 lagunek hartu dute parte

Agenda 21 egitasmoaren barruan, azken hiru urteetan egin den bezala, Oria ibaiaren garbiketa egin dute Bernedoenetik Urbietako zubira dagoen tartean. Ikastetxe guztietako ikasleak, elkarte ezberdinetako partaideak eta nahi zuten beasaindarrak gonbidatu ziren ekimenean parte hartzera. Irailaren 27an jarri zuten hitzordua eta bi orduraz aritu ziren lanean. 45 lagun bildu ziren, besteak beste, La Salle, Beasaingo Ikastola eta Alkartasuna Lizeoko ikasle eta irakasleak. Urrats bat gehiago izan da ingurumen osasuntsu baten alde, Beasaingo gizartea, kohesioa, arduratsua, solidarioa eta partehartzailea izate bidean.



Ba al dakizu...

- Udan 32.073 lagunek erabili zituztela estaligabeko igerilekuak?
- Udal Euskaltegian 117 pertsona matrikulatu direla 2008-2009 ikasturterako? Gainera, iaz ikasten aritu zirenetatik, 27 lagunek jasoko dituzte Udalak euskara ikasteko ematen dituen diru-laguntzak.
- Musika Eskolan zenbatek eman duten izena? 334 ikaslek. Haietatik, 50 helduak dira, nahiz eta gehientsuenak haur eta gazteak izan.